

# KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2021eko azaroa

## Aurkibidea

1. EAEko BPGaren hazkundera

2. Lan merkatua

3. Inflazioa

4. Enpresarien konfiantza

5. Inguruneko hazkundera

6. NDFren aurreikuspenak

7. Hilabeteko laburpena

Eranskina

### 1. EAEko ekonomia %3,8 hazi zen aurtengo hirugarren hiruhilekoan.

Enplegua %3,2 handitu zen 2020ko epe beraren aldean.

### 2. Enplegu tasak hobera egin zuen berriro hirugarren hiruhilekoan.

Eta langabezia tasa %8,9ra gutxitu zen, azken urteetako mailarik txiki-ena baita.

### 3. Lehengaien prezioek moteltzeko joera iradokitzen dute.

Petrolioaren salneurriak bakarrik eusten die 2021eko baliorik gorenei gaur egun.

### 4. EAEko enpresen konfiantzak eremu positiboan jarraitzen du urte amaieran.

Konfiantzaren hobekuntza Europako herrialdeetan jasotakoaren antzekoa da.

### 5. Susperaldiak indarra galdu zuen hirugarren hiruhilekoan.

Halere, urte arteko aldakuntza tasak altuak dira.

### 6. Ekonomia suspertzeko aurreikuspenak daude, baina bizitasun gutxiagorekin.

Orobat, alde handiak egongo dira herrialdeen erritmoan, txertaketen eta laguntza planen arabera.

### 7. Hilabeteko laburpena.

Moteltze handia hazkunde erritmoan.

# EAE-KO BPG-AREN AURRERAPENA

## EAEko ekonomia %3,8 hazi zen aurtengo hirugarren hiruhilekoan


### BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa

#### URTE ARTEKO BPGA

#### 3. HIRUHILABETEA

**%3,8**



Eustatek aurtengo hirugarren hiruhilekorako kontu ekonomikoaren aurrerapena argitaratu du eta jarduera ekonomikoaren hazkundera %3,8an zenbatetsi du urte arteko tasari dagokionez. 2020an Covid-19aren pandemiaren hedapena mugatzeko hartutako murrizketa bereziek eragindako beherakada ekonomikoaren ondoren, 2021eko uztailetik irailera bitartean BPGaren hazkunde neurritsua hauteman da, hilabete horietan eskaintzaren eta eskariaren

koiunturako adierazleek erregistratu duten igoerekin bat datorrena. Hala eta guztiz ere, ziurgabetasun handiak, inflazio joerak, hornidura kateetako botila lepoek, baliabide eskasiak eta energiaren prezioen garestitzeak moteldu egin dute hazkunde erritmoa espero zenarekiko.

Hiruhileko arteko tasetan, EAEko BPGa %0,8 hazi zen. Zifra hori segidako bosgarren hiruhilekoan dago, hiruhileko arteko aldakuntza tasa positiboekin.


### BPGA

Hiruhileko arteko aldakuntza tasa

#### HIRUHILEKO ARTEKO BPGA

#### 3. HIRUHILABETEA


**%0,8**



## ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza tasa

### URTE ARTEKO ENPLEGUA 3. HIRUHILABETEA %3,2



Lan merkatuari dagokionez, enpleguari buruzko datuek bilakaera positiboari eutsi diote. Izan ere, enpleguak, lanaldi osoko lanpostu baliokide gisa neurtuta, %3,2 egin du gora aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta. Kopuru hori urteko hirugarren hiruhilekoan lanaldi osoko 29.500 lanpostu inguru sortzearen baliokidea da. Hiruhileko arteko terminoetan, enpleguak %0,6 egin du gora.


Urte arteko tasa ez dator guztiz bat Ekonomia eta Plan-gintza Zuzendaritzak egindako aurreikuspenarekin; izan ere, azken aurreikuspenean, enplegua %3,5 haziko zela iragarri zen.

Abenduaren 3an argitaratuko ditu Eustatek 2021eko hirugarren hiruhilekoko BPGaren eta enpleguaren datu zehatzak.

## ENPLEGUA

Hiruhileko arteko aldakuntza tasa

### HIRUHILEKO ARTEKO ENPLEGUA 3. HIRUHILABETEA %0,6




Iturria: Eustat



## Enplegu tasak hobera egin zuen berriro hirugarren hiruhilekoan

ENPLEGU TASA. 16-64 URTE BITARTEKOA  
Ehunekoak


III. HIRUHILEKOKO TASA  
**%68,3**




EAEko ekonomiaren susperraldia lan merkatuko datuetan islatzen ari da, bai enpleguari dagokionez, bai lan-gabeziari dagokionez. Hala, BJAk lan egiteko adinean dagoen, hau da, 16 eta 64 urte bitartean dagoen, biztanleriaren enplegu tasa % 68,3ra igo zuen. Horrek esan nahi du 2,5 puntu berreskuratu direla pandemiaren hasieran gertatu zen jaitsierarekin alderatuta. Hala eta guztiz ere, oraindik puntu bat inguru falta da duela bi urte erregistratu zen tasara (%69,2) itzultzeko.

Generoaren arabera analisiak adierazten du bietan partekatzen dutela okupazioaren hobekuntza hori, eta bai emakumeen bai gizonen artean enplegu tasaren igoera bi eta hiru ehuneko punturen artean egon dela. Dena dela, sei puntuko aldea dago bi tasa horien artean, nahiz eta alde hori ixten ari den emakumeak lan merkatuan duen parte hartzea handitzen den heinean. Gaur egun, tasak %65,2 dira emakumeentzat eta %71,4, berriz, gizonentzat.

16-64 URTE BITARTEKO ENPLEGU TASA.  
EMAKUMEAK  
Ehunekoak




16-64 URTE BITARTEKO ENPLEGU TASA.  
GIZONAK  
Ehunekoak



Enpleguaren gorakadaren ondorioz, langabeziak behera egin du nabarmen, eta hirugarren hiru hilekoan langabezia tasa %8,9 izan da, azken urteetako baxuena baita. Kasu horretan, ia ez dago alderik emakumeen (%8,9) eta gizonen (%8,8) tasen artean. Alde handiak daude, ordea, nazionalitatearen arabera pertsonen langabezia tasan. Hala, espainiar nazionalitatea duten pertsonen langabezia tasa %7,5 da, eta beste nazionalitate bat duten pertsonena, berriz, %21,1. Alde handia egon arren, azken kolektibo horren langabezia tasa ere azkar jaisten ari da.


## LANGABEZIA TASA. GUZTIRA

Ehunekoak




## LANGABEZIA TASA. EMAKUMEAK

Ehunekoak




## LANGABEZIA TASA. GIZONAK

Ehunekoak




## LANGABEZIA TASA. ESPAINIARRAK

Ehunekoak



## LANGABEZIA TASA. ATZERRITARRAK

Ehunekoak




Iturria: Eustat.

# INFLAZIOA

## Lehengaien prezioek moteltzeko joera iradokitzen dute

### LEHENGAIEN PREZIOAK GUZTIRA

Indizea



### INDUSTRIAKO LEHENGAIEN PREZIOAK

Indizea



The Economist aldizkariak argitaratzen dituen lehengaien prezioen indizeek apaltzeko joera erakusten hasi dira, 2021eko lehen erdian erregistro benetan altuak markatu ondoren, batez ere Txinaren bilakaera positiboaren eta koronabirusaren aurkako txertaketa hastean merkatuetan sortutako susperraldi itzaropenen ondorioz. Horiek horrela, Txinan material industrialen stock nabarmena pilatzeak eta aipatu berri den mundu-

ko eskariaren suspertze azkarrak metal arrunten prezioa igotzea ekarri zuten. Aldi berean, hornigaien falta eta ekoizpen katearen unean uneko etenak gertatu ziren maila globalean, eta inflazio globalean goranzko eragina eragin zuten. Hala ere, azken hilabeteetan lehengai garrantzitsuenen prezioa egonkortu eta merkatu egin da, nahiz eta oraindik ere maila altu samarretan dagoen.

### LEHENGAI METALIKOEN PREZIOAK

Indizea



### LEHENGAI EZ-METALIKOEN PREZIOAK

Indizea



## BRENT MOTAKO PETROLIO UPELAREN EGUNEKO PREZIOA

Dolarrak upeleko




Lehengai energetikoen artean, petrolioaren prezioa %50 baino gehiago igo da aurten, eta 80 dolarretik gorako salneurria markatu du ia urri osoan, duela urtebete Brent upeleko kotizazioa 40 dolar inguru kokatu zen bitartean. Igoera horren arrazoen artean daude LPEEk eta beste herrialde batzuek ekoizpena kontrolatzeko hartu dituzten erabakiak, baita hainbat arrisku geopolitiko ere, petrolio erreserbetan eragin oso negatiboa izan dutenak, eskaintzaren eta eskariaren arteko desoreka handia eraginez.

Bestalde, gasaren prezioak goia jo zuen urriko lehen egunetan, 116 eurora iritsi baitzen MWh-ko. Hortik aurrera, prezioa 77 euro arte apaldu da, baina jaitsiera horrek ez du argindarraren merkatzea ekarri. Azkenik, elikagaien prezioek gainerako lehengaiak izan zuten beherantzko joera bera erakutsi zuten. Hala, prezio horiek jasotzen dituen indizea 130 indizetik behera kokatu zen, maiatzean 140tik gora zegoen bitartean. Halako maila alturik ez zen 2012ko erdialdetik lortu.


## ELIKAGAIEN PREZIOAK

Indizea



## GAS NATURALAREN EGUNEKO PREZIOA

Euroak MWH bakoitzeko



Iturria: The Economist eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.



# ENPRESARIEN KONFIANTZA


## EAEko enpresen konfiantzak eremu positiboan jarraitzen du urte amaieran

### ENPRESA KONFIANTZAREN INDIZEA.

EUSKADI

2021eko 4. hiruhilekoa

55,6




Laboral Kutxak 2021eko laugarren hiruhilekoari dagokion enpresen konfiantzari buruzko azterlana aurkeztu du. EAEko 400 enpresaren erantzunetan oinarritutako lana da, eta aurtengo azken hilabeteetan gertatuko dena argitu nahi du. Lortutako emaitzetan oinarrituta, badirudi pandemiak sortutako krisia desagertzen ari dela. Izan ere, azken emaitzek hobekuntza handia jasotzen dute eta hirugarren hiruhilekoan lortutako aurrerapenak sendotzen dituzte. Zehatz-mehatz adierazita, inkestan parte hartu duten konpainien %39k uste dute ingurunearen egoera ekonomikoak hobera egingo duela aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta,

ondorioz, baikorrak izango dira EAEko enpresak eta enpresen konfiantza indizea 55,6ra arte gorarazi dute 2021eko azken txanpan. Datu horrek esan nahi du ia hiru puntu igo dela aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (52,7), eta ia 13 puntu aurtengo bigarren hiruhilekoarekin alderatzen bada.

Indizeak 50etik gora kokatzea hedapen eremuan egotea esan nahi du, eta horrek merkataritza bazkide nagusiek lortutako emaitzekin bat egiten du. Azken datuen arabera, Espainiako konfiantza indizea 60,6 izan zen abuztuan, eta eurogunekoa irailean, 56,1.


### FAKTURAZIO IGURIKIMENAK

Indizea



### JARDUERA IGURIKIMENAK


Indizea






## ESKARIEN IGURIKIMENAK

Indizea




## PREZIOEN IGURIKIMENAK

Indizea



## ERRENTAGARRITASUN IGURIKIMENAK

Indizea




Baikortasun hori aztertutako ia parametro guztietara hedatzen da, atal gehienak 50 puntutik gora finkatu direlako. Errentagarritasuna salbuespena da, apal eta beheragoko mailetan jarraitzen duelako.

Zehatzago esanda, inkestatutako konpainia guztien %35,4k uste du fakturazioak hobera egingo duela, %51,6k uste du antzekoa izango dela eta gainontzeko %13,0k, berriz, okerrera egingo duela. Inbertsio bolumenari dagokionez, enpresa guztien %19,3k uste du laugarren hiruhilekoan gora egingo duela eta %13,8k uste du behera egingo duela. Azkenik, konpainien %80,3k adierazi du enpleguak bere horretan jarraituko duela, %12,6k plantilla handitzea espero du eta %7,1ek justu kontrako.


## LANGILE IGURIKIMENAK

Indizea



## INBERTSIO IGURIKIMENAK

Indizea



Iturria: Laboral Kutxa.



# INGURUNEKO HAZKUNDEA

## Susperraldiak indarra galdu zuen hirugarren hiruhilekoan


### TXINAKO BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

TXINAKO BPGA  
2. HIRUHILABETEA  
**%4,9**

Aurtengo hirugarren hiruhilekoko adierazle ezagunek erakusten dute moteldu egin dela munduko ekonomia nagusien hazkunde erritmoa. Hala eta guztiz ere, hazkunde tasek esanguratsuak izaten jarraitu zuten, eta, beraz, ekonomiaren suspertzea ez dago arriskuan.

Txinako hazkunde hainbat faktorek mugatu zuten, eta horrek BPGaren beheranzko eragina izan zuen. Zehatzago adierazita, zero Covid politikak modu negatiboan eragin zuen. Politika horrek itxiera eta konfinamendu berriak ekarri zituen, edozein berragerpen txiki baten aurrean. Baita ere lehengaien kostu handiak, ikatz eskasiak (horren




mende daude, hein handi batean) eta ingurumen helburuak betetzeko ahaleginek. Azken puntu horrek energia hornidura arrazionalizatzea ekarri zuen herrialdeko hainbat lekutan, eta, ondorioz, industria askok jarduera murriztu behar izan zuten. Horren guztiaren ondorioz, Txinako BPG %4,9an kokatu zen.

Estatu Batuei dagokienez (%4,9), gobernuaren laguntzak kentzeak, delta aldaera hedatzeak eta mugikortasuneko murrizketak itzultzeak kontsumo pribatuari indarra kendu zitoten, eta hornikuntza kateetako arazoek esportazioak mugatu zituzten.

### AEBETAKO BPGAREN HAZKUNDEA


Urte arteko aldakuntza tasa

AEBETAKO BPGA  
2. HIRUHILABETEA  
**%4,9**



## EUROPAR BATASUNA 27EN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




Europar Batasuna ez zen moteltze horretatik kanpo geratu, eta hala jasotzen dute Eurostatek argitaratutako lehen zenbatespenek. Estatistika horren arabera, Europar Batasuna %3,9 hazi zen. Dinamismo txikiago hori ekonomia nagusietara hedatu zen. Italiak %3,8 egin du gora, Frantziak %3,3 eta Alemaniak %2,5.

Espainiako ekonomiaren kasuan, kontsumo pribatuaren (%1,1) eta inbertsioaren (%1,3) moteltze handiak BPGaren beheranzko eragina eragin zuen, %2,7ra arte apaldu baitzen. Enplegua suspertzen ari da (%6,2), baina salmentek ez dute intentsitate berarekin egin aurrera. Baliteke autoen eta beste ondasun batzuen erosketek eragina izatea, kontsumoan pisu handia dutelako eta hornidura faltagatik geldirik daudelako, edo inflazioak gora egin duelako, horrek erosteko ahalmena murrizten baitu.

## ITALIAKO BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: ELGE, BEA, Eurostat eta INE.


## ALEMANIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




## FRANTZIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



## ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




# NDF-REN AURREIKUSPENAK

## Ekonomia suspertzeko aurreikuspenak daude, baina bizitasun txikiagoarekin

### MUNDUKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Urriko txostenean, Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) 2021erako mundu mailako hazkunde aurreikuspenak aurkezten ditu, pixka bat beherantz berrikusita, eta orain %5,9an kokatzen da; 2022koa, berriz, %4,9an mantendu du.


2021eko hazkunde tasaren beheranzko berrikuspen globala hainbat faktorek eragin dute. Pandemiaren bilakaera negatiboak arriskuan jarri ditu garapen bidean dauden eta diru sarrera txikiak dituzten herrialdeen aurreikuspenak. Ekonomia aurreratuetan, eszenategi ekonomikoaren narriadura hornidura arazoaren eta lehengaien prezioen igotzearen ondorioa da.

### NDFREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2020	2021	2022	2021	2022
<b>Munduko ekonomia</b>	<b>-3,1</b>	<b>5,9</b>	<b>4,9</b>	<b>-0,1</b>	<b>0,0</b>
<b>Ekonomia aurreratuak</b>	<b>-4,5</b>	<b>5,2</b>	<b>4,5</b>	<b>-0,4</b>	<b>0,1</b>
AEB	-3,4	6,0	5,2	-1,0	0,3
Eurogunea	-6,3	5,0	4,3	0,4	0,0
Alemania	-4,6	3,1	4,6	-0,5	0,5
Frantzia	-8,0	6,3	3,9	0,5	-0,3
Italia	-8,9	5,8	4,2	0,9	0,0
Espainia	-10,8	5,7	6,4	-0,5	0,6
Erresuma Batua	-9,8	6,8	5,0	-0,2	0,2
Japonia	-4,6	2,4	3,2	-0,4	0,2
<b>Garatzen ari diren herrialdeak</b>	<b>-2,1</b>	<b>6,4</b>	<b>5,1</b>	<b>0,1</b>	<b>-0,1</b>
Txina	2,3	8,0	5,6	-0,1	-0,1
India	-7,3	9,5	8,5	0,0	0,0
Errusia	-3,0	4,7	2,9	0,3	-0,2
Brasil	-4,1	5,2	1,5	-0,1	-0,4


## EKONOMIA AURRERATUEN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




## GARATZEN ARI DIREN EKONOMIEN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




## AEBETAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



## ERRESUMA BATUKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




Herrialdeen arteko aurreikuspen ekonomikoaren desberdintasun handia da alderdirik azpimarragarria. Ekonomia aurreratuen BPGA susperraldi erritmo bizian mantentzea aurreikusten da, eta 2022an pandemia aurreko egoerara iritsiko dela uste da. Azaleratzen ari diren eta garatzen ari diren merkatuetako ekonomiek (Txina kenduta), aldiz, ez dituzte pandemiaren aurreko mailak epe ertainean berreskuratuko.

Suspertzeko profiletan dauden alde sakonak txertoak eskuratzean eta laguntza politika ekonomikoaren programetan dauden desberdintasun handien ondorio dira. Nazioarteko Diru Funtsaren arabera, munduko txertaketa orokorra da lehentasuna, eta birusaren mutazio oldarkorragoak saihestea, pandemia luzatzeko probabilitatea murrizteko.

## ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: NDF.



# HILABETEKO LABURPENA

## Moteltze handia hazkunde erritmoan

Hilabete honetan ezagutu ditugu hirugarren hiruhilekoko BPGaren aurrerapenak Europako herrialdeetan, Txinan eta Estatu Batuetan. Espero zitekeen bezala, **zifra horiek, oraindik oso altuak izan arren, oso urrun daude bigarren hiruhilekoan erregistratutako ezohiko erritmoetatik**. Txinan, apaltzeko joera hori %4,9ko gehikuntza batean islatu da, aurreko hiruhilekoan jasotakoa baino hiru puntu gutxiago direlarik, neurri batean zero Covid politikaren ondorioz. AEBen kasuan, urte arteko aldakuntza tasa %12,2 izatetik %4,9 izatera igaro da. Euroaren eremuan, kopuru horiek %14,2 eta %3,7 dira, hurrenez hurren. Moteltzeko joera garrantzitsua da herrialde handietan ere, Alemania %2,5 eta Frantzia, berriz, %3,3 hazi direlako. Azkenik, Espainiari dagokionez, INEk argitaratu duen aurrerapena %17,5etik %2,7ra jaisten du hazkundera. Zifra horiek ikusita, Eustatek EAEko ekonomiarako aurreratu zuen %3,8 hura oso arrazoizko balioa iruditzen zaigu, ingururako aipatutako tasekin bat etortzen delako.

Bukatu da laugarren hiruhilekoko lehen hilabetea, eta informazio gutxi dugun arren, informazio hori oso ona da. Eta, neurri handi batean, harrigarria. Europako herrialdeek urrian izan zuten sentimendu ekonomikoaz ari gara. Gauza jakina da gaur egun enpresek dituzten arazo nagusiak hornidurarik eza eta inflazioaren gorakada direla. Bi alderdi horiek behin eta berriz agertzen dira eguneroko prentsan eta iritziak jasotzen dituzten estatistika ohikoenetan. Horregatik, deigarria egiten zaigu urrian sentimendu ekonomiko nabarmen hobetu izana, tentsio horien erdian. Izan ere, **euroaren eremuaren kasuan, indize hori zortzi hamarren igo da 118,6 punturaino, urte horretako uztailean lortutako errekorretik lau hamarrene-ra soilik**. Gogoratu behar da hileko horretan ez zela botila lepoez edo estanflazioaz hitz egiten. Espainiaren kasuan, igoeira 2,5 puntukoa da eta azken hogeituro urteetako edozein datu hobetu du. Azken ezustekoa: Espainiako industriaren sentimendua bere maximo historikotik hamarren batera bakarrik dago.

Euskadin ez dugu aipatutakoa bezalako sentimendu indizerik, baina egon badaude enpresen aldartea jakiteko aukera bat baino gehiago. Horietako bat da Laboral Kutxak argitaratzen duen enpresen konfiantzaren indizea. **Adierazle hori 55,6 puntura igo da laugarren hiruhilekoan, azken hamar hiruhilekoetako baliorik altuena baita**. Orobat, haren gaur egungo maila 2017ko eta 2018ko urteko batez bestekoan jaso ziren mailen antzekoa da, eta 2019koa baino zertxobait handiagoa. Atal guztiak, errentagarritasunarena izan ezik, eremu baikorreen daude. Oro har, esan daiteke EAEko enpresen konfiantza Europako herrialdeetan dagoenaren antzekoa dela.

Enpleguari dagokionez, hirugarren hiruhilekoko biztanleriaren jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA) ezagutu da. Eragiketa estatistiko horrek datu onak utzi ditu, bai enpleguari dagokionez, bai langabeziari dagokionez. Lehenengo kasuan, **16 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren enplegu tasa, lan egiteko adinean dagoena esaten zaiona, %68,3ra arte igo da**, eta, beraz, pandemiaren aurreko maila berreskuratu du, nahiz eta oraindik puntu bat falta zaion seriearen gehieneko zifra gainditzeko. Hiruhileko horretan, gizonen enplegu tasa %71,4an kokatu zen eta emakumeena, berriz, %65,2an. Langabeziari dagokionez, langabezia tasa nabarmen jaitsi zen, %8,9ra iritsi arte, urte askotako mailarik baxuena delarik. Kasu horretan, bilakaera paraleloa dago bi generoen artean, eta emakumeen langabezia tasa (%8,9) gizonena (%8,8) baino hamarren bat handiagoa da soilik. Aldeak handiagoak dira langabeziaren datuak nazionalitatearen arabera aztertzen direnean; izan ere, nazionalen %7,5aren aldean, atzerritarren langabezia tasa %21,1 zen.

# ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT. Urte arteko aldakuntza tasa

	2019	2020	2020			2021	
			III	IV	I	II	III
<b>BPG</b>	2,2	-9,9	-8,1	-8,1	-2,9	18,6	3,8
Barneko azken kontsumoa	2,0	-8,9	-7,6	-7,0	-2,5	18,1	—
Familien kontsumoa	1,7	-12,4	-10,3	-10,6	-3,7	22,6	—
Administrazioaren kontsumoa	3,1	3,8	2,8	6,5	1,6	5,2	—
Kapital eraketa gordina	3,3	-11,7	-11,5	-8,5	-1,3	21,4	—
Barne eskaria	2,3	-9,6	-8,5	-7,4	-2,2	18,9	—
Esportazioak	-0,2	-16,1	-14,3	-13,8	-2,4	30,1	—
Inportazioak	0,0	-15,4	-14,7	-12,5	-1,4	29,8	—
Lehen arloa	5,9	-15,0	-13,0	-28,1	-7,1	7,8	—
Industria eta energia	1,4	-11,2	-8,9	-6,8	-1,1	30,2	—
Eraikuntza	2,4	-8,2	-7,7	-6,5	-2,4	11,5	—
Zerbitzuak	2,5	-9,0	-7,2	-7,7	-3,5	15,5	—
Balio erantsi gordina	2,3	-9,5	-7,7	-7,6	-2,9	18,4	—
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,0	-13,6	-11,8	-12,8	-3,0	20,4	—
Enplegua	1,5	-7,7	-5,8	-5,9	-2,1	16,6	3,2

IRAILEKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA . Urte arteko aldakuntza tasa

	2021		2021	2022				2022
	III	IV		I	II	III	IV	
<b>BPG</b>	5,5	7,4	6,7	8,8	7,5	5,6	4,0	6,4
Barneko azken kontsumoa	5,8	6,9	6,7	8,1	5,8	5,2	3,8	5,7
Familien kontsumoa	6,8	8,2	7,9	9,9	7,0	6,3	4,4	6,8
Administrazioaren kontsumoa	2,9	2,7	3,1	2,2	2,0	1,6	1,8	1,9
Kapital eraketa gordina	6,0	8,3	8,0	8,7	9,9	5,3	3,4	6,7
Barne eskariaren ekarpena	6,1	7,5	7,3	8,5	7,1	5,4	3,8	6,1
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,6	-0,1	-0,6	0,3	0,4	0,2	0,2	0,3
Lehen arloa	5,9	9,0	3,5	6,9	9,5	-2,5	-6,1	2,3
Industria	6,9	7,6	9,7	7,9	7,1	5,2	2,5	5,6
Eraikuntza	4,1	4,8	4,2	5,0	5,8	3,3	3,9	4,5
Zerbitzuak	5,0	7,5	5,7	9,3	7,9	6,0	4,4	6,8
Balio erantsi gordina	5,3	7,3	6,6	8,7	7,6	5,6	3,8	6,4
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	7,1	8,5	7,8	10,4	6,0	6,1	5,9	7,0
Lanaldi osoko lanpostuak	3,5	3,8	5,1	4,1	3,2	2,9	2,9	3,3
Landunak (BJA)	2,8	1,9	1,3	1,9	1,0	1,1	0,6	1,2

EAEKO AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK. Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022		2021	2022
Confebask	7,2	—	BBVA	5,5	7,5
Hispalink (BEGren aldak.)	6,7	5,3	Funcas	5,5	—
Laboral Kutxa	6,3	6,8	CEPREDE	4,7	6,0

# ESTADÍSTICA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE  
Urte arteko aldakuntza tasa

	2019	2020	2020			2021	
			III	IV	I	II	III
<b>BPG</b>	<b>2,1</b>	<b>-10,8</b>	<b>-8,7</b>	<b>-8,8</b>	<b>-4,2</b>	<b>17,5</b>	<b>2,7</b>
Kontsumo pribatua	0,9	-12,2	-9,0	-10,1	-6,2	23,4	1,1
Kontsumo publikoa	2,0	3,3	3,6	4,7	3,8	3,9	2,9
Kapital finkoaren eraketa gordina	4,5	-9,5	-7,3	-5,7	-2,7	18,8	-0,2
- Aktibo finko materialak	5,8	-10,5	-7,5	-6,3	-2,9	21,2	-1,3
- Eraikuntzan	7,1	-9,6	-7,8	-8,8	-9,6	9,2	-6,2
- Ekipamendu ondasunetan	3,2	-12,9	-7,6	-2,6	8,5	46,8	6,5
- Jabetza intelektualaren produktuak	-1,5	-4,3	-6,2	-2,8	-1,3	8,4	5,5
Nazio eskaria (ekarpena)	1,6	-8,6	-6,4	-6,5	-3,0	17,3	1,5
Esportazioak	2,5	-20,1	-19,7	-15,3	-7,3	38,9	13,7
Inportazioak	1,2	-15,2	-14,5	-9,5	-3,9	38,4	10,2

BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK  
Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022		2021	2022
AFI	6,4	5,8	Intermoney	7,0	6,7
Axesor	6,1	5,7	Mapfre Economics	6,0	6,0
BBVA	6,5	7,0	Oxford Economics	6,1	5,8
CaixaBank	6,3	6,0	Repsol	6,1	5,8
Cámara de Comercio España	5,9	6,2	Santander	6,7	7,0
Cemex	6,5	6,0	Metyis	6,3	5,3
CEEM-URJC	6,3	5,7	Universidad Loyola Andalucía	6,1	6,4
CEPREDE-UAM	6,0	6,2	Consenso (batez bestea)	6,2	6,1
CEOE	5,7	6,0	Gobernua (2021-07)	6,5	7,0
Equipo Económico (Ee)	6,3	5,2	Espainiako Bankua (2021-06)	6,2	5,8
FUNCAS	6,3	5,8	Europar Batzordea (2021-07)	6,2	6,3
ICAE-UCM	6,6	8,4	NDF (2021-07)	6,2	5,8
IEE	5,4	5,7	Consensus Forecast (2021-10)	5,6	6,1

Iturria: Espainiako Gobernua, AFI: Analistas Financieros Internacionales, Repsol, NDF: Nazioarteko diru funtsa, BBVA, CaixaBank, CEOE: Confederación Española de Organizaciones Empresariales, Comisión Europea, FUNCAS, Espainiako Bankua, CEPREDE, Consensus Forecast, Axesor, Cámara de Comercio España, CEEM-URJC, Cemex, Equipo Económico (Ee), ICAE-UCM, Instituto de Estudios Económicos (IEE), Intermoney, Mapfre Economics, Oxford Economics, Santander, Universidad Loyola Andalucía eta Metyis.



# ESTADÍSTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

## BPGAREN HAZKUNDEA Urte arteko aldakuntza tasa

	2019	2020	2020		2021		
			III	IV	I	II	III
AEB	2,3	-3,4	-2,9	-2,3	0,5	12,2	4,9
Txina	6,1	2,0	4,9	6,5	18,3	7,9	4,9
Japonia	0,3	-4,8	-5,4	-0,8	-1,3	7,7	—
Kanada	1,9	-5,3	-5,1	-3,1	0,3	12,7	—
Europar Batasuna	1,8	-5,9	-3,9	-4,1	-1,2	13,7	3,9
Eurogunea	1,5	-6,3	-4,0	-4,4	-1,2	14,2	3,7
Alemania	1,1	-4,6	-3,7	-2,9	-3,0	9,9	2,5
Frantzia	1,8	-7,9	-3,6	-4,3	1,5	18,8	3,3
Erresuma Batua	1,7	-9,7	-8,1	-7,1	-5,8	23,6	—
Italia	0,4	-8,9	-5,4	-6,6	-0,7	17,0	3,8
Herbehereak	2,0	-3,8	-2,6	-3,1	-2,3	10,7	—

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

## CONSENSUS FORECAST. 2021EKO URRIA Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2021	2022	2021	2022	2021	2022
AEB	5,7	4,1	4,4	3,4	5,5	4,2
Japonia	2,3	3,0	-0,2	0,5	2,9	2,7
Kanada	5,1	4,1	3,1	2,7	7,6	6,3
Europar Batasuna	5,0	4,3	2,3	2,0	—	—
Eurogunea	5,1	4,4	2,3	2,0	7,9	7,6
Alemania	2,8	4,4	3,0	2,2	5,7	5,3
Frantzia	6,1	3,8	1,7	1,6	7,9	7,9
Erresuma Batua	6,9	5,1	2,3	3,3	4,9	4,9
Italia	5,9	4,3	1,7	1,7	9,6	9,6
Espania	5,6	6,1	2,5	1,8	—	—
Herbehereak	4,1	3,5	2,1	2,0	—	—

Iturria: Consensus Forecast.